

GIZA ESKUBIDEEN ETA BIZIKIDETZAREN INGURUKO I JARDUNALDIAK. AZKEN INFORMEA

BAKEAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA NAGUSIA
HERRITARREKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA

2020ko abendua



Egileak:

Mikel Berraondo (Soinua Social Transformation)
Adriana Ciriza (Soinua Social Transformation)

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
1.1.	Aurrekariak	3
1.2.	Aditu taldea	4
2.	EGITARUA	6
2.1.	WEB MINTEGIEN ZIKLOA	6
	Web mintegia 1.- Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko politikak. Ikaskuntzak globalizaziotik	6
	Web mintegia 2.- Bizikidetzaren eta giza eskubideak bipentsatzen pandemia ostean	6
	Web mintegia 3.- Toki erakundearen egitekoa giza eskubideen eta bizikidetzaren sustapenean.	7
2.2.	LAN-JARDUNALDI BIRTUALA ADITUEKIN	8
	Lehenengo saioa: Bizikidetzaren esparruak eraikitzen Nafarroan. Gogoetak eta gomendioak	8
	Bigarren saioa: Bizikidetzaren sozioanbientala erakunde publikoetatik.	8
3.	LABURPENA ETA SISTEMATIZAZIOA	9
3.1.	Bizikidetzaren dinamikak eta giza eskubideak	9
3.2.	Nafarroako errealitatea	18
4.	GOMENDIOAK	19
5.	JARDUNALDIEN AMAIERAKO GOGOETAK	22

1. SARRERA

1.1. Aurrekariak

Komunitate orotan bizikidetzaren kalitatea giltzarri elementua da hura osatzen duten pertsona guztien giza garapenerako eta ongizaterako. Bizikidetzaren egoki baten alde lan egiteak berekin dakar, alde batetik, askatasunean, justizian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako balio eta kode etikoen sistemara pixkanaka eta irmoki hurbiltzea, eta, era berean, gizarte eta gizarteko erakundeak indartzea demokrazia, berdintasuna eta elkartasuna, desberdinen arteko errespetua eta gatazkak modu baketsuan eta elkarrizketaren bitartez konpontzeko nahia gauzatzeko. Bizikidetzaren maila egokiak lortzen saiatzea ez da inola ere utopia bat, aitzitik, ezinbestekoa da garapen komunitariorako.

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu nahi izan du bizikidetzaren arloan duen erantzukizuna, kalitatezko bizikidetzaren lortzeak lehentasunezko helburu izan behar duela jabeturik. "Bizikidetzaren eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako Programa Akordioa"n berariaz jaso da honako jarduketaren proposamen hau: "Bizikidetzaren, Oroimen eta Giza Eskubide Plan Estrategiko bat garatu, ahalik eta kontsentsurik handiena erdietsiko duena, eta arlo horietan jarraitu beharreko ildo estrategikoak ezarriko dituen". Helburu nagusi hau ezarri zaio Nafarroako Bizikidetzaren Plan Estrategikoari: "Berdintasunean eta askatasunean bizitzea Nafarroa demokratiko, plural eta askotariko batean".

Helburu nagusia lortu ahal izateko, bost zutabe eta hainbat jarduketa-esparru definitu dira. Zutabeak hauek dira:

1. Berdintasuna.
2. Askatasuna.
3. Demokrazia.
4. Pluraltasuna.
5. Aniztasuna.

Nafarroako Bizikidetzaren Plan Estrategikorako jarduketaren eremu posible batzuk definitu dira; besteak beste, honako hauek:

1. Memoria eta biktimak.
2. Giza eskubideen errespetua.
3. Kulturen eta erlijioen aniztasuna.
4. Lurralde bereko identitate soziopolitikoaren aniztasuna.
5. Pertsona eta ondasunen aurkako gorrotoa, intolerantzia eta indarkeria deslegitimatzea eta desagerraraztea.
6. Gizalegea eta herritarren bizikidetzarako arauak errespetatzea.
7. Eskubide eta askatasun berdinen izatea pertsona guztientzat, edozein dela ere haien generoa.
8. Giza eta gizarte-balioetan hezteko eta sentibilizatzeko, eta bizikidetzarako gaitzea.

9. Eskubide sozialak eta gizarteratze erabateko eta bereizkeriarik gabeko bat lortzeko bermeak.
10. Erakundeak, bizikidetzarako balio demokratikoen erreferentzia.

Nafarroako Bizikidetzeta Plana lantzeko prozesuak plurala, parte hartzekoa eta gardena izan behar du. Horretarako webgune bat sortu da, dagoen informazio guztiarekin. Bertan eskura daude hainbat kolektibo eta erakunde egiten ari diren ekarpenak, eta plana lantzen lagunduko duten ideia aberasgarriak eskaintzeko aukera dago.

1.2. Aditu taldea

Azaldutako aurrekariak eta Zuzendaritza Nagusian egiten ari ziren aurrerapauso guztiak abiapuntu, erronka zen lurraldeko bazter guztietako esparru akademikoko adituen laguntza izatea bizikidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako gaitan.

Lehen urrats gisa jardunaldi birtualak antolatzea erabaki zen, asmo hauekin:

- Giza eskubideen eta bizikidetzaren inguruko erronkez jabetzea eta haiek identifikatzea nazioartean, eremu nazionalen eta Nafarroako lurraldean.
- Nafarroako Gobernuak eta giza eskubideen eta bizikidetzaren sustapenerako politika publikoek duten eginkizun funtsezkoari buruz gogoeta egitea.
- Nafarroako bizikidetzarako eta giza eskubideetarako planari ezarri nahi zaizkion zutabeak eta jarduketa-eremuak aztertzea, eta plan horretarako komenigarri izan litezkeen beste zutabe edo esparru batzuk ikertzea.

COVID-19ak ekarri duen osasun arloko krisia dela-eta, zenbait ekintza birtual egitea planteatu zen. Bai txostengileek bai bertaratuek ahalik eta gehien parte hartzeko moduko metodologia erabiliko da. Gainera, espazioek baterako sorkuntza eragin behar dute lan honen helburuetan planteatzen diren erronken eta rolen definizioaren inguruan.

Proposatu zen web-mintegien ziklo bat eta adituekin batera lan egiteko jardunaldi bat antolatzea azaroko azken astean.

Lehenik, hiru web-mintegiren zikloa egin zen giza eskubideetarako eta bizikidetzarako garrantzia duten gaiez. Web-mintegi bakoitzak ordubete eta ordu eta erdi bitartean iraun zuen. Haietako bakoitzean hiru-lau adituk parte hartu zuten eta moderatzaile batek zuzeneko espazioa dinamizatu zuen. Bestalde, txataren dinamizatzaile bat aritu zen bertaratuen parte-hartzea sustatzen.

Bigarrenik, lan-jardunaldi bat egin zen adituekin batera, bi saiotan zatitua, bizikidetzeta eta giza eskubideen sustapena xede dituzten politika publikoek sakonean aritzeko. Saio horiek balio izan zuten gonbidatuen eztabaida eta gogoetak aztertzeko, Nafarroako Gobernuaren bizikidetzeta plana lantzeko prozesurako aholku baliagarriak identifikatze aldera.

Saio bakoitzak ordu eta erdi iraun zuen.

Lan saio guztietan adituak elkarrekin hizketan aritu ziren. Moderatzaile batek zuzendu zituen solasaldiak, aldez aurretik adituekin adostuta zeuden galderak eginez. Gainera, web-mintegietan edo lan-jardunaldian parte hartu zutenek aukera izan zuten adituekin iritziak trukatzeko, iradokizunak, gogoetak eta galderak zirela medio. Horiek guztiak saio bakoitzean kokatutako txat ireki batean gauzatu ziren. Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko aholkulari bat moderatzaile aritu zen, eta saioetako txatetan parte hartzera animatu zuen jendea.

Jardunaldietatik aurrera Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak aditu talde bat eratu nahi du, aholku-batzorde gisara jarduteko gai izanen dena Bizikidetzeta Plana prestatzeko eta giza eskubideen aldeko estrategia zehazteko lanetan.

2. EGITARAUA

Lan-egitaraua azaroaren 23tik 27ra bitartean garatu zen. Lehendabizi, web-mintegien ziklo bat egin zen azaroaren 23tik 25era bitartean. Gero lan-jardunaldi bat egin zen adituekin. Ekintza guztiak formatu birtualean gauzatu ziren.

Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivitek inauguratu zituen jardunaldiak, azaroaren 23an, eta Martín Zabalza zuzendari nagusiak eman zien amaiera, azaroaren 27an.

2.1. WEB-MINTEGIEN ZIKLOA

2020ko azaroaren 23a, 24a eta 25a.

Behean azaltzen dira bilera birtualen zerrenda eta azkenean haietan parte hartu zuten pertsona.

1. web-mintegia.- Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko politikak. Ikaskuntzak globalizaziotik.

Lehenbiziko web-mintegiaren xede nagusia izan zen aztertzea nazioarteko agendako zer alderdiren baldintzapean edo zer alderdirekin estu lotuta dagoen bizikidetzari edo giza eskubideen errespetuari buruzko politiken garapena. Adituak galdera hauei erantzuten saiatu ziren: Nazioarteko agendetako (Europako agenda, NBErena) zer eremu tematiko hartu behar dira kontuan bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko eskualde-politika baten eraketan? Nola egin ahal dio eskualde-politika publiko bati mesede nazioarteko erakundeen edo erreferentziako ikastegi lanak, esaterako Global Campus of Human Rights erakundearenak? Zer erreferentzia erabil daitezke EBtik edo NBEtik, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko politikak eskualde-esparru batean hobetzeko?

Web-mintegien zikloaren inaugurazioa
Nafarroako Gobernuko lehendakaria.- María Chivite

Global Campus of Human Rights Venice. - Carmen Márquez
EB.- DEVCO eta AECID.- Beatriz Alvarez
OHCHR.- NU.- Luis Rodriguez Piñeiro

2. web-mintegia.- Bizikidetzaren eta giza eskubideak birpentsatzen pandemia ostean.

Bigarren web-mintegiak ardatz izan zuen COVID-19 pandemiak eragindako egungo krisia eta krisi hori dagoeneko gure gizartean sortzen ari den ondorioak. Gizartegatazkak, desberdintasunak areagotzea, biztanleak txirotzea, oinarritzko zerbitzuek gainezka egitea, paralisi ekonomikoa, etab. Adituek galdera hauei erantzun zieten, besteak beste: Nola sustatu bake soziala eta bizikidetzaren sistema krisian dagoen garai

nahasi hauetan? Nola erantzun gizartetik, pandemia gainditzeko neurrietan giza eskubideak nagusitu daitezzen? Zer eginkizun bete behar dute eragile sozial, politiko eta ekonomikoek bizikidetzaren sustatzeko?

Deustuko Unibertsitatea.- Asier Martínez de Bringas – Konstituzio Zuzenbideko irakaslea.

Pablo de Olavide Unibertsitatea.- Vicente Barragán.- Joaquín Herrera Flores Institutuko zuzendaria

Carlos III Unibertsitatea.- M^a Jose Fariñas.- Zuzenbidearen Filosofia eta Soziologiako irakasle titularra.

Valentziako Unibertsitatea.- Adela Cortina. Etikako katedraduna. Etnor fundazioko zuzendaria.

3. web-mintegia.- Toki erakundearen egitekoa giza eskubideen eta bizikidetzaren sustapenean.

Hirugarren web-mintegian arreta jarri zitzaion toki erakundearen egitekoari, bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetua sustatzen dituzten eragileak diren aldetik. Gai hori aztertzeko, adituek honako galdera hauei ekin zieten: Zer ahalmen eta rol hartzen ahal dituzte beren gain toki erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen sustapenean? Zer adibide bilatzen ahal ditugu Estatuko beste eskualde batzuetan, toki erakundearen lanerako eredu izan daitezkeenak? Zer zutabek eta arlo tematikok bereganatu behar dute toki erakundearen interesa Estatuan, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan?

Bartzelonako Unibertsitatea.- David Bondía.- Nazioarteko Zuzenbide Publikoko eta Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra. Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko lehendakaria.

Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.- Silvina Álvarez Medina. Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titularra.

Nafarroako Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuko zuzendaria.- José M^a González Oderiz

Nafarroako Gobernuaren Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiko aholkulari teknikoa.- Mikel Berraondo

2.2. LAN-JARDUNALDI BIRTUALA ADITUEKIN

2020ko azaroaren 27a.

Lehenengo saioa: Bizikidetzeta-esparruak eraikitzen Nafarroan. Gogoetak eta gomendioak.

09:30 - 11:00

Lan-jardunaldiko lehenengo saio horretan hausnarketa egin zen gaur egun Nafarroan diren bizikidetzeta-esparruei buruz. Nafarroa bezalako eskualde batean aniztasun politiko, kultural eta sozialak eragiten dituen erakunde-akordioak, itun sozialak, tirabirak eta erronkak. Horretarako, adituak honako galdera hauen inguruan aritu ziren eztabaidan: Zein izan litezke bizikidetzaren erronka handiak Nafarroan? Nola prestatu behar ditugu gizartea eta erakunde publikoak bizikidetzeta guneak eraikitzeko? Zer aholku ematen ahal zaizkio Nafarroako Gobernuari bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko apustua sendotu dezan?

NUP: Begoña Perez.- UNESCO katedrako zuzendaria

NU: Angela Aparisi: NUko Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna.

EHU Globernance: Daniel Innerarity.- Filosofiako katedraduna eta Globernanceko zuzendaria.

Bigarren saioa: Bizikidetzeta sozioambientala erakunde publikoetatik.

11:30 - 13:00

Lan-jardunaldiko bigarren saioan aztergai hartu ziren Nafarroan bizikidetzeta plan batek bildu behar dituen zutabeak eta eremu tematikoak. Klima aldaketari lotutako ingurumen arazoak, erakundeek zer ikuspegitatik heldu behar liezaieketen gizarte eta ingurumen gatazkei. Nazioarteko edo eskualdeetako beste esperientzia batzuei erreparatuta, galdera hauek egin ziren: Nola eragiten dio klima aldaketak bizikidetzari, eremu globaletik toki eremuraino? Beste eskualde batzuetan, gatazka sozioambientalak dauden testuinguruetan, nola sustatzen dituzte erakunde publikoek bizikidetzeta eta giza eskubideak? Zer eremu tematikok behar dute arreta berezia, bizikidetzeta eta giza eskubideen errespetua sustatze aldera? Nola uztar daiteke bizikidetzeta eta giza eskubideak sustatzeko toki agenda bat nazioarteko beste esperientzia batzuekin?

Deustu.- Javier Arellano.- Gizarte Zientzien Fakultateko dekanoa

Zaragoza/Globernance.- Cristina Monge, Globernance ikertzailea, Zaragozako Unibertsitateko irakaslea. Komunikabideen arloko analista politikoa.

NUP.- Jorge Urdanoz.- Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea.

13:00 Jardunaldiaren amaiera.- Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaria. Martín Zabalza Arregui

3. LABURPENA ETA SISTEMATIZAZIOA

Atal honetara ekarri dira Bizikidetzari eta Giza Eskubideei buruzko I. Jardunaldietako saioetan azaldu ziren gogoeta eta gomendioetako batzuk, interesgarriak baitira giza eskubideen aldeko foru estrategia eta Nafarroako bizikidetzaren eta giza eskubideen lehen plana prestatzeko prozesurako.

Gogoetak eta gomendioak argitaratu egin dira, ez daitezten ideiak errepikatu edo gainjarri, eta egiten ari den lanaren testuingururako interes handiena duten pentsamenduak aukeratu dira.

3.1. Bizikidetzaren dinamika eta giza eskubideak

Kontzeptualizazioa

Beti jakintzat ematen da *giza duintasun* kontzeptua, baina ez dago adostasunik ez kontzeptuaz ez norbanakoaren edo taldearen mailan planteatzen dituen eskakizunez. Duintasun kontzeptu desberdinak erabiltzeak giza eskubideen inguruko gatazka asko eragiten ditu. Horregatik, garrantzitsua da zenbait argibide ematea duintasun kontzeptuari buruz, eta esparru kontzeptual argi bat ezartzea bizikidetzaren planean.

Hala San Frantziskoko Gutunak nola Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak giza eskubideen oinarri-oinarrian giza duintasuna jartzen dute. Eremu honetan **duintasuna ez da giza eskubide bat, giza eskubideen funts nagusia baizik, eta, horrenbestez, bakean, justizian eta askatasunean oinarritutako bizikidetzaren ororen funtsa da.** Badira ikusmolde kontrajarriak haren esanahiari eta hura garatzearen ondorioei buruz. Ez dago adostasun kontzeptualik, eta, horregatik, egile askok diote edukirik gabeko kontzeptua dela.

Nazioarteko testuetan "duintasun" hitza oraintsukoa da, baina hausnarketa historiko eta filosofikoa ez da hain berria. **Duintasuna baino lehen *humanitas* edo *gizatasun komuna* kontzeptua erabiltzen zen, hau da, "guztion gizatasun berdina, aniztasunaren gaineratik".** *Humanitas* ideia horrek interpelazio zentzua zuen eta pertsonenganako errespetuzko jokabideak eskatzen zituen.

Beste ideia garrantzitsu batek "**senidetasun**" kontzeptua du ardatz. Senidetasuneko loturak izatea. Duintasunaren oinarrian dagoen beste kontzeptu bat da. **Senidetasun komunaren ideia behin eta berriz azaldu zen historian zehar Aro Modernora arte, non giza subjektuaren beste ideia hau proposatu zen: izaki indibidualista, independentea eta bere buruaren jabea. "Homo Omnipoten" deitu zaiona. Ideia hori gure garaietara arte iritsi da, eta giza eskubideen eta duintasunaren kontrakoa da.** Gizakia izatez taldekoa da, solidarioa, bizikidetzaren beharra du.

Erantzunkidetasuna

Giza eskubideen oinarrian badago "besteak bezalakoak" garelako ideia. Besteen beharra dugu. Horregatik, **elkartasuna gizatasunari datzekion beharrezkoa da. Horregatik da garrantzitsua eskubideen eta betebeharren arteko erantzunkidetasuna.** Eskubideak baliatzeaz gainera, giza eskubideen alde konprometitu beharra dago.

Erantzunkidetasuna behar-beharrezkoa da. Gizartearen eta Administrazioaren eta giza eskubideen arteko harremanetan erantzunkidetasunez jardun beharra dago. Giza eskubideak prozesu baten emaitza dira zeinean eskubideak pertsona guztientzat diren, edozein izanda ere bakoitzak bere bizitzan garatzen dituen rolak. Horregatik, parte-hartzea zabaldu beharra dago.

Giza eskubideetan oinarritu behar dira bizikidetzaren arloko politikak, integratzaileak eta inklusiboak izanen badira. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak arauzko erreferentea izan behar du, bizikidetzaren arloko politikak lantzeko lagungarria. Bera hartu behar da abiapuntutzat agenda eta ekintza-planak zehazteko, aukera berdintasuna eta aniztasun sozialaren errespetua bermatuz eta erronka globaletara moldatzen ahaleginduz (hala nola klimaren krisia, COVID-19 pandemia, desberdintasunak edo globalizazio ekonomikoa).

Horren haritik kontuan hartu behar da **Estatuko erakunde guztiei —autonomia erkidegoak barne— ezartzen dizkietela betebeharrak juridikoak Estatuak berresten dituen giza eskubideei buruzko nazioarteko tratatuak.** Behartuta daude aitortutako eskubideak errespetatzera, herritarrak babestera eta haien edukiak gauzatzera, nazioarteko tratatu horietan aitortutako eskubide guztiak baliatu ahal izanen direla bermatuz.

Horren ondorioz, nazioarteko erakundeek ezinbesteko erreferenteak (eta aliatuak) izan behar dute politika publikoak prestatzerakoan. Giza eskubideen arloan nazioarteko erakundeek sustatzen dituzten nazioarteko politika guztiak toki esparruetatik hasita interpretatu behar dira, eta tokiko politiken definizioen osagarri izan behar dute.

Arreta berezia merezi dute **giza eskubideen aldeko plan nazionalak.** Bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko autonomia-erkidegoetako planek giza eskubideen aldeko Espainiako plan nazionalaren osagarri izan behar lukete.

Gobernantza egokia

Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko edozein politika publikoren bizkarrezurra izan behar luke **gobernantza egokia** lortzeko, giza eskubideei buruzko nazioarteko tratatuetan oinarrituta. Gobernantza egokia lortuz gero, politika publikoak sendotu egiten dira, eta zuzeneko onurak sortzen dira gizartearentzat. Ikuspuntu juridikotik, estandar argiak eta erreferentzia zehatzak edukitzen direlako giza eskubideen babeserako nazioarteko mekanismoetan; ikuspuntu sozialetik, 2030 Agenda beste agenda sozial batzuekin osatzen delako; eta ikuspuntu instituzionaletik, gobernantza egokia lagungarria delako giza eskubideen nazioarteko estandarrak betetzeko eta erakundeen zilegatasuna areagotzeko. **Gobernantza egokia da giza eskubideak babestu eta gauzatzea bermatzen duen mekanismo bakarra.**

Gobernantza egokiaren kontzeptua gobernu baten jardunbide zehatzei aplikatu ahal izateko, zeharka aplikatu behar da gobernu horren esparru guztietan; **giza eskubideak oinarri dituen ikuspegia hartu, zeinaren arabera prozesuak emaitzak bezain garrantzitsuak diren eta beti eskaini behar den eskubideen bermea;** halaber, bai Gobernua osatzen duten erakundeek bai **eragile sozial eta ekonomikoek giza**

eskubideen arloko prestakuntza egokia eta nahikoa jaso behar dute; orobat kontuan hartu eta aplikatu egin behar dira errelatore bereziek eta giza eskubideen babeserako nazioarteko beste mekanismo batzuek ematen dituzten gomendioak; eta, azkenik, giza eskubideen arloko gaien gaineko eskudantziak dituzten erakunde publiko guztien arteko koherentziarako eta koordinaziorako esparru bat behar da.

Plan baten eraketan kontuan hartu behar dira hainbat agenda global. GJHen agenda, genero-agenda edota enpresen eta giza eskubideen agenda aintzat hartu beharrekoak dira.

GJHen agendari dagokionez, kontuan izan behar da Nafarroak baduela bere 2030 Agenda GJHak garatzeko, eta agenda hori agenda nazionalaren eta nazioarteko agenden osagarria dela. Garrantzitsua da zehaztea zein den giza eskubideen sustapenarekin zerikusia duen atala, GJHen betetzearen esparruan.

Generoa

Bestalde, oso kontuan hartu behar dira genero-agendak eta emakumeen eskubideen sustapena, bizikidetzaren plan baten barnean. Genero-indarkeriaren auziari heldu behar zaio, eta berez pandemia bat dela jabetu. Indarkeria horren barnean kontuan hartu behar dira baita indarkeria psikologikoa eta sare sozialen bidez gauzatzen den indarkeria ere.

Emakumeen eskubideak direla-eta, Nafarroako Gobernuak kontuan hartu behar lituzke eskualde-erakundeek Espainiako emakumeen eskubideen egoeraz egin dituzten eskualde-txostenak, EBko generoaren arloko ekintza plan berria eta Gobernu zentralak genero-berdintasunari begira 2020ko martxoan onetsi zuen estrategia. Bizikidetzaren planari genero-ikuspegia erantsi ahal izateko, garrantzitsua da giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batetik lantzea plan horren edukia.

Beharrezkoa da parte-hartze bete berrak emakumeen erakunde eta kolektiboei, planaren fase guztietan bermatu ere (edukien definizioa, inplementazioa eta monitorizazioa). Parte-hartze horrek kuantitatiboa ez ezik kualitatiboa ere izan behar du; kontu emateko eta plana ebaluatzeko sistemetan genero-adierazleak jarri behar dira; eta kontuan hartu behar dira emakumeek pairatzen dituzten indarkeria mota guztiak.

Parte hartzea eta koordinazioa

Parte hartzeak gako elementua izan behar du bizikidetzaren planari zilegitasuna emateko. Horren ildotik, garrantzitsua da parte hartzeko eremu zabalak sustatzea, era guztietako eragile eta talde sozialak biltzeko gai direnak. Berezi sustatu behar da emakumeek parte hartzea, bai eta talde kalteberak ere, esaterako gazteak eta migratzaileak. Gogoan izan behar da politika publikoak ezartzeko prozesuetan emaitzak bezain garrantzitsuak izaten direla prozesuak berak. Bizikidetzaren baketsua nahi badugu, guztiok hartu behar dugu parte, eta talde guztiek izan behar dute lekua.

Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko autonomia-erkidego bateko planak eskualde horretako premia zehatzak asetzeko balio behar du. Gainera, biztanleek zein erakundeek giza eskubideez kontzientzia har dezaten balio behar du; erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko etengabeko elkarrizketarako plataforma izan

behar du, eta giza eskubideak sustatzen dituzten erakunde publiko guztien arteko koordinaziorako tresna.

Badira bi erronka handi Nafarroako Gobernuak erantzun beharrekoak. Batetik, zehaztu beharra dago zein diren giza eskubideen arloko auzi garrantzitsuenak Nafarroako Gobernuaren eskumenen ikuspuntutik nahiz gizarte zibilaren interes tematikoen ikuspuntutik. Eta bestetik, **foru gobernuko erakunde publikoak elkarrekin eta Estatuko erakunde publikoekin koordinatu beharra** ere erronka nagusi bat da. Beste erronka bat da maila desberdinetako erakunde eta politika publikoen arteko koordinazioarena (Estatua eta autonomia-erkidegoa).

Desberdintasuna

Pandemiak larriagotu egin ditu gizarte modernoek betidanik dituzten desafio batzuk. Desafioak osasun arloan, desafio humanitarioak, desafio sozioekonomikoak eta lanekoak. Duela 40 urte baino gehiago agertu zitzaizkigun, eredu neoliberalaren krisia hasi zenean, baina pandemiak areagotu egin ditu. Desafio horiek gure gizarteak dituen hainbat arazotan gauzatzen dira. Arazo horiek okerrera egin dute pandemiaren ondorioz, eta bizikidetzaren plan batek aintzat hartu behar lituzke.

Alde batetik, era guztietako desberdintasunen arazo zinez larria dugu. Desberdintasunak sortzen dituen sistema batean bizi gara eta gizarteak desberdintasuna onartzen du sistemaren egiturazko osagaitzat. Gizarteak kritikarik gabe onartzen duen heinean, desberdintasunen naturalizazioa gertatzen da, immobilismo sozialarekin batera, sinetsita baikaude ezin dela egoera aldatu.

Desberdintasuna bizikidetzaren eragozten duen hesia da. Desberdintasun ekonomikoa bizikidetzaren kontrako arazo gehien sortzen dituen ezaugarrietakoa da. Beraz, desberdintasun ekonomikoak gainditzeko beharra da bizikidetzaren erronka nagusia. Hori lortzeko, **gizartean sustatu behar da berdintasunezko baldintzetan partaidetza ekonomikoa izateko eta eskubide sozialak baliatzeko aukera.** Gizarte inklusioa beharrezkoa da bizikidetzaren gauzatu ahal izateko. Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak gizarte osoari bermatu beharra dago.

Gainera, **lanerako eskubidea bermatu behar da oinarrizko beste eskubide batzuen iturri eta berme gisa, bai eta soldata duinerako eskubidea ere.** Lanak bermatzen digu eskuratu ahal izatea gizarte prestazioak (erretiroa, langabezia, gizarte segurantza) eta prestazio ekonomikoak, eta horietan bermatzen dituzte parte-hartzea eta bizikidetzaren.

Gure gizarte politiken sistemak huts egin du biztanleria osoa babesteari dagokionez. Gaur egun arazo larriak ditugu gizarte bazterkeria dela-eta, bermatu gabe baitaude parte hartzeko beharrezkoak diren gizarte prestazioak (langabezia, gizarte segurantza).

Ingurumena

Beste arazo garrantzitsu bat da ingurumenaren suntsipena, dagoeneko bizi dugun klimaren krisiaren bitartez aspaldi luzean salatzen ari dena. Aro Modernoko sistema ekonomiko kapitalistak modu basatian suntsitzen du ingurumena, eta berarekin batera bizia. Gizakiak bere burua suntsitzeko dinamika bat darabil. Nola egingen diogu aurre ingurumenaren suntsipenari eta nola kudeatuko dugu? **Ingurumenarekin ditugun harremanak berreraikitzeke mekanismoen** beharra dago. Birplanteatu egin behar ditugu sistema ekonomiko erauzleak, eta ingurumenarentzat jasangarriagoak izanen diren konponbideak bilatu energia ekoizteko.

Badago arazo garrantzitsu bat, saioaren batean azpimarratu dena: **gure garaian ez dira elkarrekin lotzen gizarte arazoak eta ingurumen arazoak, eta bereiz hartzen dira.**

Klima aldaketaren eta giza eskubideen eremuan, oraintsu arte ez zaio gaiari heldu gizarte zientzien ikuspuntutik; bi ikasketa eremu bereizi, eta bakoitza bere aldetik jorratu da, bata arlo zientifiko eta fisikoetan eta bestea gizarte zientzien arloan. Jakintza handia sortu da ikuspegi horretatik; aurrez, ordea, ezjakintasun hutsune handia dago, duela 30 urtera arte iraun duena ia-ia. Geroago ingurumena gai ekonomikoei eta garapen ekonomikoari lotuta aztertu izan da, eta garai horretan zuzenbidearen aldetik ere bai, halako gaiei buruzko legeak egiteko beharraz jabetuta.

Oso berandu hasi dira ingurumenarekin zerikusia duten gizarte arloko ikerketak. Mugarri garrantzitsu bat izan da ulertzea klima aldaketak bestelako aldaketei eragiten diela: ingurunea aldatu egiten da, eta ondorioz ingurune horretan bizi diren pertsonen baldintzak ere bai. Bizia bezalako eskubide oinarrikoei eragiten die, esaterako, ura ez dagoenean guztientzat eta leku guztietan eskuragarri, edota airearen kutsadurak osasunari kalte egiten dionean.

Klima aldaketak barnean hartzen ditu biosferako aldaketak. Horrenbestez, pertsonen bizitzarako oinarritzko baliabideak kolokan jartzen dira eta giza eskubideak baliatzea eragozten duten arazoak sortzen dira. Horren harira, ezin zaizkio klima aldaketari egotzi lehendik baziren arazo batzuk, hala nola pobrezia edo desberdintasunak, baina bai arazo horien larriagotzea, are nabarmenagoa pertsona kalteberenengan. Are gehiago sakontzen du desberdintasunaren arrakala. Klima aldaketaren ondoriozko krisiek larriagotu egiten dituzte lehendik baziren kalteberatasunak. Gaur egun klima aldaketa da pertsonen lekualdaketen eta migrazioen eragile nagusia.

Eragin orokorrak etorkizuneko gatazken eta bizikidetzaren arazoak iturri izan daitezke. **Gatazka sozioambientalak ez daude arazo ekologikoei soilik loturik, aitzitik, haien azpian badaude bestelako gatazkak.** Garrantzitsua da gogoan izatea iparraldeko herrialdeek hartzen dituzten zenbait erabakik eragina dutela hegoaldeko herrialdeetan eta baliabideen eskuragarritasunean, eta beste biztanleria batzuen oinarritzko eskubideak urratzen dituztela. Tokian tokiko pentsamendua izan behar da, bazter utzi gabe tokiko ekintzek nazioartean izan dezaketen eragina.

Halako egoeren aurrean, **2030 Agenda sendotu behar da ikuspegi globalari eusteko premia aintzat hartuta; eskubide sozioekonomikoak sustatu behar dira, gizarte eta ingurumen alderdiak koherentziaz uztartuta;** eta estatuen arautze-ahalmena sustatu

behar da; estatuen zilegitasuna gatazketan bitartekaritzan aritzeko, bereziki estatuek lotura estua dutenean enpresen interesekin. Kasu horretan, kaltegarria da bientzat, eta horregatik oso garrantzitsua da zilegitasun soziala duten organo independenteak izatea.

Globalizazioa

Eta beste alde batetik **hausturen arazoa** dugu, **zatiketena, den-dena globalizatu duen sistema baten baitan, eta protagonista izanik joera ideologikoak edo erlijiosoak, gizartean zatiketa oso larriak eragiten dituztenak** pertsonen alienazioaren ordezkotzuk aukerak eskaintzeko ahaleginean.

Egungo erronka politikoa aurrean azaldutako arazoak kudeatzean datza; baina, oso bereziki, era guztietako desberdintasunak kudeatu behar dira, **elkartasuna berreskuratu behar da politika publikoak egituratzen dituen balio gisa**. Sistema ekonomiko neoliberalaren elkartasunik ezak ekonomia antolatzeko sistema izateari utzi behar dio, marjinazioa eta bazterketa eragiten dituelako.

Egiturazko elkartasuna

Egiturazko elkartasuna gizarte bazterketaren arazoak leuntzeko aipatu diren neurrietako bat da. Zerga progresiboak, eta gehiago behar duenari gehiago ematea: horra azken hamarkadetakotz gure gizartearen aurrerapauso handi bat. Elkartasun horrek bazterketaren prebentzioa bermatu du eta parte-hartze eta bizikidetzat maila onak ahalbidetu ditu Europan.

Itun soziala

Bizikidetzat itun gehiagoren beharra dago. Oinarritzko bi itun, berriak ez izan arren berriz ere garrantzia hartu dutenak.

- **Desberdinek elkarri ez erasotzeko itun soziala.** Gero eta liskar gehiago sortzen dira desberdinen artean. Arrazakeria, fobiak, supremazismoak... Gorroto eta supremazismo mezu horiek guztiek erakusten dute itunak huts egiten duela eta mekanismo berriak bilatu behar direla itunek ongi funtzionatu dezaten.
- **Desberdinen arteko itun soziala.** Birbanatze ituna, desberdinen arteko bizikidetasunerako mekanismoak bilatzen dituena. Birbanaketa dago horren oinarrian, alegia, elkartasuna berreskuratzea balio publiko gisa (elkartasunik ezari amaiera emanen diona). Gizarte politikak eta eskubide sozialak indartu behar dira, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak sendotu behar dira konstituzio eta lege bidez, are nazioarteko esparruetan ere.

Gainera, oso larria da **lanak nagusitasuna galdu izana gizarteratzeko mekanismo eta eskubide-iturri gisa**. Emantzipazio sozialerako eskubide guztiak lanarekin lotuta daude. Lana erdigune horretatik kenduta, eskubide horiek kolokan jartzen dira. Lanak gabeko mundua eskubiderik gabeko mundua da. Lana despolitizatu dadin utzi da, eta determinismo teknologikoa kalte egiten ari zaio lanaren kontzeptuari.

Pedagogia

Amaitu behar da eskubideen inguruko *onkeria* politikoa. **Egiaz eskubideak dituen jende kopurua oso txikia da, eta eskubideak berak ere urriak dira.** Beharrezkoa ere bada argi zehaztea hala erantzukizunak nola eskubideak. **Erantzunkidetasunak** erdiguneko osagaia izan behar du giza eskubideen arloko politika publikoetan. Beraz, indartu egin behar dugu. Herritarrek ulertu behar dute eskubideak ez ezik betebeharrak ere badituztela, eta guztiek izan behar dute erantzunkideak. Horrez gain, giza eskubideei buruzko hezkuntza landu behar da gizarteko atal guztietan. Gazteek ezer gutxi dakite memoria historikoaz eta, batez ere, giza eskubideez, oro har. Ez dago giza eskubideen gaineko ikasketak edo programak jasotzen dituen irakasgairik ikastetxeetan ematen den curriculumaren barnean, ez Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, ezta institutu eta unibertsitateetan ere.

Izugarri garrantzitsua da giza eskubideen pedagogia sustatzea, haien ezagutza hedatzeko eta haien hurbiltzeko herritarrengana, oro har, erakunde publikoengana, erakunde publikoak osatzen dituzten pertsonengana eta gobernu organoengana. Esparru guztietako sustapena ere beharrezkoa da eskola eta ikastetxeetan, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan edo goi mailakoan. Horrek guztiak bide emanen du kontsultagune espezializatuak garatzeko eta benetako toki-kultura sortzeko giza eskubideen inguruan.

Giza eskubideen kultura berri horretan pertsonen bizitza pribatua eta familiakoa identifikatu behar ditugu, zeinetan kokatzen baitira giza eskubideak: eremu publikoa familiari eta bizitza pribatuari lotuta dago. Denboraren banaketa bezalako kontuak, egunero etxeetan kudeatzen diren horiek (adibidez, telelana, adingabeen zaintza edo mendekotasuna dutenen zaintza), giza eskubideen esparruan kokatuta aztertu behar lirateke.

Elkartasuna

Beste alde batetik, **elkartasunaren arloko politika publikoak** behar dira, non elkartasun hori jakintzaren, hezkuntzaren eta teknologien banaketa bilakatuko den. Politika publiko horiek berriz sarrarazi behar dituzte herritarrek sistemara, utz diezaioten herritar sistemikoak izateari, onurak lortzeko soilik jotzen dutenak sistemara. Halaber politika horiek giltzarri dira ez daitezen sustatu bestelako sistema fundamentalistak edo muturrekoak, herritar zapuztuak baizik erakartzen ez dituztenak.

Segurtasuna

Segurtasunaren eta **eskubideen** arteko orekaren bila, serio hartu behar da kontu hau: segurtasun kontzeptuetan oinarrituta eskubideak auzitan jartzen ari dira beren osotasunean. Horren aurrean, gogora ekarri behar da eskubideen nolakotasuna. **Eskubideak elkarren mendekoak izatea gakoa da, bai eta eskubideak baliatzerakoan azaltzen den interesezionalitatea ere.** Behar-beharrezkoa da giza eskubideei ikuspegi interesezionala aplikatzea. Horretarako, garrantzitsua da talde "kalteberatuekin" lan egitea. Kontuan izan behar da giza eskubideen urratzeak ez direla beti etortzen Administrazioaren aldetik; **eskubideen titulartzat eta, horrez gain, erantzukizunen titulartzat** hartu behar dira eragile eta entitate guztiak (enpresak,

familiak, etab.), eta gainera ez da pentsatu behar giza eskubideen urratzeak beti mota berekoak direnik. Horretarako, **erantzun anizkunak emateko gaitasuna** behar da. Eta aintzat hartu interdependentzia, interrelazioa eta zeharkakotasuna.

Merkatua

Azken hori dela-eta, **merkatutik aldentutako bertsio baten arabera indartu behar dira eskubide sozialak, eta utzi egin behar zaio eskubideak despolitizatzeari, merkatu ekonomikoen kontraesanak deuseztatzeko**. EBko zutabe sozialaren esparruan merkatuak malgutu eta giza eskubideak bermatu, batera egin ezin litezkeen gauzak dira. Erakunde publikoak hor ari dira beren efizientzia (merkatuari lotua) galdu gabe pertsonen oinarritzko beharrezan asetzeko ahaleginean. Eta kontuan hartu behar da merkatuak ekonomia ez ezik eskubideak ere erregulatzen dituela.

Kulturartekotasuna eta kultura-aniztasuna

Gainera, kulturartekotasunaren kontzeptua birpentsatu beharra dago: **kulturartekotasuna ez da kultura-aniztasunarekin nahasi edo parekatu behar**. Ulertu behar da kulturartekotasuna dela gizarte plurala izatea, askotariko ezaugarriak (generoa, adina, jatorria, erlijio-identitatea eta abar) dituzten subjektuek osatua. Eta aitortu behar da kulturartekotasuna gizartearentzat aberasgarria dela eta hura harmonizatu egin behar dela. Garrantzitsua da jakitea **kultura bakoitza aztertzean giza eskubideen aurkako barne-egintzak azaltzen direla zenbaitetan**.

Lana

Lana eta soldata duina prekarizatzeko eskubideen esparruan dituen ondorioak izugarriak dira, eta kalte larria egiten diete **garrantzi handiko eskubide batzuei**. Eskubideok bermatu eta babestu egiten dituzte gizarte laguntza, mendekotasuna dutenen babesa –batez ere zaharren babesa–, pobrezia energetikoa, etxebizitzaren eskuragarritasunaren bermea eta etxegabetzeen aurkako babesa, arrakala digitala –bazterketa eragile gisa–, “bakardade berri” deituen azalera, osasunaren babesa.

Eraikuntza

Borondate politikoa izatea funtsezkoa da **partaidetzazko gizarte politikak eraikitzeko**, diagnostiko sozial era berean partaidetzazkoak oinarri dituztenak. Horrek guztiak bide emanen du eragile publikoen eta gizarte zibilaren edo herritarren arteko tartekak laburtzeko. Herritarrek ez dute beren burua afera publikoetako partaide ikusten, eta urrundu egiten dira eraikuntza prozesuetatik eta ekintzetatik. Hala ere, herritarren mobilizazioak aurrera egiten du.

Hurbiltasuneko demokrazia

Erakunde publikoek hurbiltasuneko demokrazia sustatu behar dute giza eskubideekin lotuta, kontuan izanik tokiko aferen izaera subsidiarioa. Ezin litezke beti betearazi eremu handiagoko organoek garatutako politikak. Subsidiarioritasun bermatzaileak udal eremuan, hirietan estali nahi ditu arrakala horiek, estatuan edo autonomia erkidegoan halako politikarik ez badago edo daudenak toki eremuei egokitzen ez bazaizkie. Latinoamerikako zenbait hiritan beste adibide batzuk daude eta, gainera, haietan behar den ardurarekin zaintzen dira gizarte eskubideak.

Esperientzia konparatuaren argitan, garrantzitsua da **hirien rola, giza eskubideak bermatzen dituen subsidiarotasunean oinarritua**, giza eskubideen pedagogia egiteko herritarrekin, eta gaur egun bizi ditugun dikotomia politikoak gainditzea bermatuko duten parte-hartze prozesuak sustatzeko. Estatu osoan zenbait hirik giza eskubideen bulegoak edo giza eskubideen aldeko udal planak sortzeari ekin diote. Adibidez, Madrilak badu giza eskubideen udal plana; Kataluniako giza eskubideen planean, berriz, hirien inguruan parte hartzeko agoren figurak jaso dira; Logroñoko hiriak badu giza eskubideen udal plana; edo Palma de Mallorcako hiriak badu giza eskubideei buruzko eskola irekien proiektu bat.

Aipatu diren esperientzietan **hainbat arazo identifikatu dira eta garrantzitsua litzateke halakoak saihestea**: besteak beste, lehenago sortutako planek jarraitutasunik ez izatea esfera politikoaren aldaketaren ondorioz. Alderdi politikoaren ideologiaren arabera lerratutako ikusmoldea saihestea; giza eskubideen eta gobernatzaren duen alderdiaren gaineko dikotomia haustea. Parte-hartzea, politika / giza eskubideak dikotomia gainditu ahal izateko gako elementu gisa.

Bakearen, giza eskubideen eta bizikidetzaren arloko ekintzei eta politikei buruzko adibide azpimarragarriak

Nafarroako Gobernuarentzat interesgarriak izan daitezkeen adibide asko daude. Aipatu zirenen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- i. Giza eskubideen bulegoak sortzea. (Bartzelona)
- ii. Diskriminazioaren aurkako bulegoak sortzea. (Bartzelona)
- iii. Erljio gaietarako bulegoak sortzea. (Bartzelona)
- iv. Kulturen arteko bizikidetzarako planak sortzea. (Logroño)
- v. Genero-ikuspegia duten hirigintza planak sortzea.
- vi. Herritarren giza eskubideen aldeko planak sortzea: horrelako planak krisi sozialei aurre egiteko funtsezko gakoak dira. (Katalunia)
- vii. Genero-ikuspegia duen hirigintza.
- viii. Eskola irekiak. Herritar guztientzako bizikidetzaren gunea, faktore erraztaile gisa (Palma de Mallorca).
- ix. Toki arartekoak: Administrazioaren eta herritarren arteko zubia egiten duten erreferenteak. Herritarren eta enpresen arteko bitartekariak.
- x. Giza eskubideen arloko auditoriak udaletan. (Bartzelona). Txosten independenteak, askok parte hartuta eginak, prozesuari zilegitasuna emateko.

Adibide horiez gain, Nafarroakoa bezalako gobernu autonomiko batek garatzeko interesgarriak liratekeen zenbait ekintza aurkeztu ziren.

Ilido horretan proposatu zen **jardunbide egokien base bat sortzea**, nazioarteko prozesuak, nazionalak eta tokikoak barnean hartuta; edo **jarraipen eta kontrol organo independenteak sortzea**, aholku kontseiluen gisara, giza eskubideen, bakearen eta bizikidetzaren arloan lanean ari diren entitateek osatuak; edota politika publikoek giza eskubideetan duten eraginaren azterketak eta kontrol planak egitea **gizarte auditorien** bitartez. Horiek guztiak tresnak lirateke eraginen azterketa objektiboa egiteko eta hainbat arazo atzeman eta konpontzeko, hala nola desberdintasunak, osasun arazoak, arrazakeria edo kulturaren ingurukoak.

Unibertsaltasuna

Giza eskubideen unibertsaltasuna proposatu zen **politika publikoen kudeaketarako adostasun-elementu gisa**, gizadiaren irrika partekatua dela nabarmenduz. Giza eskubideei buruzko ikuspegi integratzaile horien kontra, ikuskera murriztaileak sustatzera jotzen duten zenbait arazo identifikatu dira. Gizarte modernoan ezjakintasuna (bizitzari buruzkoa) eta klasismoa bezalako arazoak, edota ezaguerarik eza eta ziurgabetasuna, gobernu ereduetan aldatetako eragiten dituztenak eskubideak murrizten dituzten jarreretarantz.

3.2. Nafarroako errealitatea

Egungo gizartearen osaera aldatu egin da pluralismoaren osaerari dagokionez. Orain kultura eta talde sozial desberdin askoren aberastasuna dugu, eta horrek pluralismo desberdinak, askotarikoak sortzen ditu. Gizartearen zati bat tematuta dago hori arazotzat hartzen, eta gizartearen beste zati batek aberastasuna deritzo. Pluralismoa behar bezala kudeatzen denean gizarte askotarikoak izanen ditugu. Baina ongi kudeatzen ez denean, haustura sozialak eta polarizazio ekonomikoak izanen ditugu.

Pluralismoaren kudeaketan garrantzitsua da argi ikustea **ez direla gauza bera gobernuko gehiengoak eta gizarteko gehiengoak, azken horiek eraldaketa sozial handiei ekiteko aukera ematen baitute gizartea egituratzen duten gaitan.** Adierazitakoa dela-eta, bizikidetzaren arloko politika batek beste indar politiko batzuekiko eta gizarte zibilarekiko adostasun sozial ahalik eta handiena behar du. Liskar politikoak egonez gero, gehiengo sozialak bermatu behar dira.

Nafarroako parte batek uste du **beste ideologia politiko batzuek norberaren komunitatearen kontra ekin dezaketela.** Bazterketa ideologiko eta identitarioak lehengoan dirau. Identitateari jarrera positibo eta pluraletik erreparatu behar zaio, bere baitan biltzen dituen identitate desberdin guztiak jasoz. **Nafarroako pluralismoak beti izan ditu oinarri hizkuntza, elebitasuna eta eleaniztasuna.** Euskara hizkuntza politizatua izan da eta gizartearen zati batek zigortua, euskal kulturarekin lotuta dagoen nafar nortasunaren zatia baztertzen duen proiektu politikoaren kontrako mehatxutzat hartu izan delako denbora batez. Orain kargu publikoak eskuratzeko desabantaila delako ideia dabil.

Nafarroako Gobernua, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, lanean ari da **hiru ardatz estrategiko nagusitan: memoriaren, giza eskubideen eta bizikidetzaren arloetan.** Memoriari dagokionez (hor sartzen dira antropologiako, soziologiako edo hezkuntzako beste azterketa batzuk ere), zenbait gertaeraren ondorio larrien garrantzia azpimarratu da, eta memoriaren beharra dagoela historia ulertzeko eta iraganeko hutsegiteak gogoan izateko, baita ongi eginak ere. Arau-esparruaren (foru legeen) itzalpean dago memoria, eta haiek errekonozimendurako bideak bilatzera behartzen gaituzte. Memoria funtsezko osagaia da iraganeko, oraingo eta geroko jarduketan azterketan.

Giza eskubideak ezinbesteko elementuak dira politikaren indartze demokratikorako. Ekonomia arloan nahiz hirigintza edo ingurumen arloetan, politika publikoaren oinarri nagusiak dira giza eskubideak, kalitate demokratikoarekin batera, eta politika horien erdiguneko elementuak dira. Eta bizikidetzaren harremanetarako faktore dinamiko eta inklusiboa da, gizartearen aurrerabideari lotua.

Bereziki azpimarratu behar da Nafarroako Gobernuak intereseko eragile guztiekin hitz egiteko gogoia eta jarrera irekia agertu duela. Elkarriketarako gune iraunkorrak ireki ditu, ikusmolde asko abiapuntu hartuta ikusmolde bateratua eraikitzeko.

Ardatz estrategikoen inguruan proiektu eta ekintza sail bat lantzen ari da, eta horiek osatzen dute Nafarroako Gobernuaren agenda estrategikoa bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan. Memoria funtsezko osagaia da analisisian eta jarduketan, eta xede horretarako garatu dira honako proiektu hauek:

- Dokumentazio zentroa eta liburutegi espezializatua, historiari eta egungo errealitatea interpretatzeko gakoak buruzko pentsamendu eta ikaskuntzarako gune gisa.
- Hezkuntza programak, memoria, bakea eta bizikidetasuna dituzten eskolen bitartez. Ikastetxeentzako proiektuak dira pertsona guztiei zuzendutakoak (irakasleak, ikasleak eta gurasoak).
- Memoriaren tokien sarea (biktimen oroitzapen eta erreparazioarako tokiak), erreferentziako tokiak.
- Irabazi-asmorik gabeko elkarrekin ekimenetarako eta toki ekimenetarako dirulaguntzak.
- Gorpuak lurpetik ateratzeko eta identifikatzeko programa: erreparazioa eta errekonozimendua. Pertsonak desagertu izanaren errealitatea aitortzea. Hobiak ezagutu eta dokumentatzea eta ADN banku bat sortzea. Eta gorpuzkinak entregatzea.
- Biktimak: banakako arreta (aholkularitza, laguntza psikologikoa), kalte-ordainak jasotzeko prozesuan laguntzea, eta pertsona horien eskura dauden baliabideak bilatzen laguntzea. Biktimak ezagutzeko hezkuntza programak.

Bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko atalean, plan eta estrategia zehatzago eta egituratuagoen aldeko joera azaldu da; esate baterako, **Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren I. Plana** abiaraztea, eta **“Pertsonak gara”** izeneko programa, giza eskubideei buruzkoa, Nafarroa osoan sentsibilizazio ekintzak indartzea helburu duena.

4. GOMENDIOAK

Nafarroako Gobernuak **nazioarteko erakunde eta sareekiko aliantzak eta lankidetzak bilatu** behar ditu. Lankidetzak hitzarmenak egiten ahal ditu, esaterako, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin edo Giza Eskubideen Europako Agentziarekin; Nazio Batuetako errelatore berezien eta lantaldeen lanak behatzen dituen entitatea izan daiteke; nazioarteko programetan parte har dezake –hala nola arartekoei laguntzeko nazioarteko programa edo giza eskubideen aldeko hirien nazioarteko sarea–, edota giza eskubideen campus globala bezalako nazioarteko sareen laguntza jaso dezake.

Nahiz eta oso orijinala ez izan, oraindik behar-beharrezkoa da eragile guztien **hezkuntzan, prestakuntzan eta trebakuntzan inbertitzea, giza eskubideak sustatzeko**. Oraindik ere giza eskubideen inguruan ezjakintasun handia dago eta beharrezkoa da prestakuntza programetarako baliabideak jartzea. Oso garrantzitsua da prestakuntza hori zerbitzari publikoei ematea; batez ere, Nafarroako Gobernuan giza eskubideen garapenaren eta errespetuaren arloan jardun behar duten departamentuetakoei. Hezkuntzan inbertitzeko premia dago, herritartasun eta parte-hartze kontzeptu berriak sortzeko.

Nazioarteko erakundeek lan asko egin dute giza eskubideen aldeko hezkuntzaren gaiari buruz. Beraz, gomendatzen da dauden baliabide guztiei heldzea eta dagoeneko beste testuinguru batzuetan garatu diren hezkuntza-esperientzietatik ikastea. Interesgarria litzateke Nafarroako Gobernuak honako hauek erreferentzia hartzea: Herritartasun demokratikorako hezkuntzari eta giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko Gutuna, Europako Kontseiluarena; eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Mundu Programa, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarena.

Halaber garrantzi handikoa da giza eskubideak inplementatzeko ardura duten **Nafarroako Gobernuko departamentuen arteko koordinaziorako guneak** sortzea. Koordinazioa beharrezkoa baita ahalegin bikoitza ez egiteko eta eragile publikoen koherentzia bermatzeko. Pandemiaren kudeaketan koordinaziorik ezak eskubide murrizketak eragin ditu.

Genero-agendei dagokienez, emakumeek parte hartzeko guneak sustatu behar dira bizikidetzak planaren definizioaren eta ezarpenaren fase guztietan.

Oso garrantzitsua da Nafarroako bizikidetzak planak berariazko atal bat edukitzea **kontuak emateko** eta planaren inplementazioa etengabe **monitorizatzeko**. Adierazle zehatzak behar dira planaren aplikazioa neurtzeko eta, bereziki, gizartea noraino eraldatzen den eta giza eskubideen inplementazioa zenbateraino hobetzen den neurtzeko.

Giza eskubideen ikuspegitik kontu-emate espezifikoagoa egite aldera gomendagarria litzateke giza eskubideen arloko auditoriak bultzatzea, politika publikoen kudeaketan giza eskubideak behar den ardurarekin zaintzeari buruzko nazioarteko estandarrak aplikatuz. Bide horretatik egin litezke arriskuen eta eraginaren azterketak, okerrak

zuzendu eta kalteak arintzeko planak, monitorizazio eta inplementazio programak, hedapen ekintzak eta prestakuntza ekintzak.

Edozein politika publiko egiten dela ere, gizarte zibilarekiko elkarrizketa eta koordinazioa hartu behar dira abiaburu. Gizarte zibilaren barnean **gazteekiko lana** sustatu behar da.

Nafarroa bezalako eskualde batean **memoriaren gaiak bizikidetzaren planaren atal izan behar du**. Euskal Autonomia Erkidegoan bilera errestauratiboak egin izan dira, eta horiek eredu interesgarriak dira justizia errestauratiboko guneak eta bizikidetzarako dinamikak eratzeko.

Behar-beharrezkoa da, halaber, **aniztasun sozialari** erantzutea, eta aniztasun hori behar adina ordezkatuta egotea bizikidetzaren planean. Badira aniztasun multipleak eta erlijio aniztasunak, eta horiek ere beren lekua behar dute bizikidetzaren planaren barnean.

Nafarroako Gobernuaren erronka nagusia, ordea, lortu den **gizarte kohesioari** eustea da. Badago arriskurik: 2008ko krisialdiak kolokan jarri zuen gizarte kohesioa, goiko klaseen eta beheko klaseen arteko arrakala sozialak sakonduz eta erdiko klasea mehartuz. Ildo horretan Nafarroako Gobernuak argi eduki behar du ez dagoela arriskuaren demokratizaziorik. Gizarteko talde batzuei askoz gogorrago eragiten diete horrelako mehatxuek, batez ere bi talderi: **migratzaileei** eta **gazteei**. Lehenengoek jasaten dituzte gehienbat lanaren prekarizazioa eta eskubideen eta partaidetza mailen galera, eta gazteei ez zaie aukera ekonomikorik ematen beren kabuz bizitzeko eta parte hartzeko bermeak izateko.

Nafarroan garrantzia eman behar zaio honako gai honi: **bizikidetzaren arloko politika memoriarekin lotuta**. Horren harira, gobernuak bide inklusiboen bila jarraitu behar du, behingoz amaiera emateko foru komunitatean izan diren **hiru indarkeria moten** inguruko konfrontazio politikoari (1936ko estatu kolpearen eta diktaduraren ondoriozko indarkeria, ETaren indarkeria eta ETaren aurkako indarkeria -hala Estatuarena nola terrorismoaren kontrako taldeena-).

Memoriari lotutako bizikidetzaren arloko politikek hiru printzipio hauek errespetatu behar dituzte beti:

- **Unibertsaltasuna:** Ezin da onartu inolako memoria selektiborik. Indarkeria guztien biktima guztiak onartu behar dira. Ez da biktimekiko axolagabetasunik izan behar, indarkeriaren iturria edo biktimagilea edozein direla ere.
- **Justifikaziorik eza:** pertsona batek gaiztakeria bat egiten badu, horrek ez du justifikatzen beste batek ere egitea. ETaren indarkeriak ez du justifikatzen Estatuak GALen bitartez erabilitako indarkeria. Ez ETaren ez GALen aldetik ez zegoen justifikaturik batak bestearen erasoerik erantzutea.
- **Biktimen duintasuna:** biktimak biktima dira. Ezin da onartu biktimak baliatzerik. Memoria zenbat eta gehiago despolitizatu, orduan eta bidegabeago agertuko da biktimek jasan zuten indarkeria eta handiagoa izanen da biktima guztienganako elkartasuna. Egia, justizia eta erreparazioa: egoera gatazkatsuetan uko egin ezinezko prozesua da hori (justizia errestauratiboa).

Biktimen eskubideak antolatzea funtsezkoa da, gizartearen dinamika baldintzatzen duen bizkarrezurra osatzen dutelako. Gainera, iraganeko gatazken biktimak ez ezik oraingoak ere identifikatu behar dira, banakako zein taldeko eskubideak urratzen diren egoerak pairatzen ari direnak.

Bestalde, lehenasunez kotzat jotzen da bizikidetza plan bat eta giza eskubideen estrategia bat prestatzea eta errealitatea ezagutzeko ikerketa zorrotza egitea. Horretarako, adituek parte hartu behar dute eztabaidetan eta estrategiak prestatzeko lanetan. Ildo horretan behar-beharrezkoa da hainbat eragileren arteko lankidetzaren etengabea elkarrizketarako eta ekintzen diseinurako eta kudeaketarako (udalak, gizarte zibileko taldeak, enpresak, GGKEak, unibertsitateak, ikastetxeak, ikerketa zentroak). Parte hartzea erraztu behar da diseinu lanetan, baina baita proiektuak gauzatu bitartean ere. Eta **maila anitzeko** lankidetzaren behar da: nazioartekoa, estatukoa, autonomia-erkidegokoa eta tokikoa.

Horrez gain, garrantzi handia eman behar zaio toki eremuari; adibidez, hiriei, eraldaketaren eragileak diren aldetik, erreferentzia hartuta **Hirietan Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutuna**.

Bizikidetza planean ez da giza eskubideen aldeko estrategia zatitu behar Administrazio Publikoko departamentuen artean. **Estrategia bakarra eta zeharkakoa eratu behar da, arlo guztiak hartuko dituena**. Herritartasun kontzeptua ere hedatu egin behar da: herritartzat hartu lurralde batean bizi diren pertsona guztiak. Eta aurrekontu mardulak eta errealak esleitu behar dira, ekintzei lotuak. Nor bere alderdiarentzako etekin politikoen bila ibili gabe.

Bizikidetza planak erdigunean jarri behar ditu giza eskubideak afera politikoetan, Administrazio Publikoan, hezkuntzan, herritarren nahiz enpresen artean; Administrazioaren zentraltasuna sustatu behar du gizarte zibilarekiko: administrazioek beren gain hartu behar dituzte gizarte zibilaren aldetik irits daitezkeen kritikak. Kritika eraikitzaileak behar dute izan, proposamen interesgarri eta esanguratsuak egiten dituztenak. Horretarako garrantzitsua da gizarte zibilean jada eginda dagoen lana jasotzea bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko planak idazteko; planok giza eskubideen eraikuntza sustatu behar dute herritarrengandik administrazioengana eta ez alderantziz; eta erakundearen eraginkortasuna sustatu behar dute, kontuan izanik burokraziaren arazo handia, ekintzak zentzuzko epean gauzatzea eragozten ahal duena.

Nafarroako Gobernuak sustatuko duen bizikidetza planak **erakundearen lan pedagogikoa bultzatu behar du**. Zehaztapenean oinarritutako pedagogia izan behar du. Eztabaidak abiarazten dituena hala behar denean. Funtzio pedagogikoak abiarazitako eztabaida horiek funtsezkoak dira arazo zehatzak atzemateko.

Era berean **erakunde publikoek babes ereduak** sustatu behar dituzte; babes eredu partekatuak eta positiboak betiere. Babesa eta segurtasuna polizia indarrez harago iristen direla ulertuz, segurtasunaren ideia birpentsatuz; babesa elikadura-subiranotasunaren arazoari eta beste batzuei aurre egiteko; energiaren eskuragarritasuna.

5. JARDUNALDIEN AMAIERAKO GOGOETAK

Jardunaldietan zehar bost saioko ziklo batez gozatu ahal izan da, goi mailako hitzaldiekin, non herrialdeko bazter guztietako adituek sakonean hausnartu duten nola sendotu bizikidetasun harremanak gizarte batean eta nola eman bultzada foru administrazioak giza eskubideen sustapenaren eta errespetuaren arloan hartu behar duen eginkizun nagusiari.

Aditu guztiek egin dituzten ekarpenen balioa nabarmendu behar dugu. Ekarpen horiek izugarri baliagarriak zaizkigu Nafarroako Bizikidetzaren I. Plana eta giza eskubideen arloko ekintzarako estrategia prestatzeko prozesuak finkatze aldera.

Halako ekarpen garrantzitsuen artetik honako hauek nabarmentzen dira:

- Elkarrizketa, parte-hartzea eta gardentasuna zeharkako ardatz metodologiko gisa hartu behar dira politika publiko orotan, politika horiek onartzeko prozesuei zilegitasuna ematen dieten elementuak baitira.
- Giza duintasunak bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko politika publiko ororen bizkarrezurra izan behar du. Horretarako garrantzitsua da halako kontzeptu adierazgarri baten inguruan oinarritzko adostasunak lortzea.
- Bizikidetzaren landu behar da gizarte garaikidearen pluralismotik abiatuta eta jasan dugun indarkeriari buruzko memoria lana oinarri hartuta.
- Eragile eta talde "kalteberatu" guztien parte-hartze inklusiboa Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartu beharreko erronka handietako bat da.
- Kontu emateak Administrazio Publikoaren konpromiso saihestezina izan behar du. Kontuak eman behar ditu monitorizazio sistemaren bitartez, adierazleak aplikatuz eta auditoriak eginez giza eskubideen arloan.
- Hezkuntza beste osagai saihestezin bat da bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko politika publiko orotan. Haurtzarotik unibertsitate garaira arteko hezkuntza. Baina baita Nafarroako Gobernuko eta udaletako departamentuetan lan egiten duten pertsona talde guztien hezkuntza ere. Administrazio Publikoan lanean ari diren pertsonen giza eskubideei buruzko prestakuntza sendoa behar dute.
- Garrantzia eta protagonismoa aitortu behar zaie emakumeen eskubideei, eta genero-ikuspegia erantsi behar da politika publikoak prestatzean, parte-hartzearen maila guztietan (kuantitatiboan zein kualitatiboan) eta politika publikoen prestatetan, inplementazioan eta monitorizazioan.
- Nazioarteko erakundeen lan guztia aplikatu behar da, bai eta nazioarteko ekimenak eta aliantzak ere. Bada jada garatutako lana, eta onuragarria izan daiteke Nafarroarentzat.
- Arreta jarri behar zaie nazioarteko beste agentzia garrantzitsu batzuei, eta haiek giza eskubideen arloko politikan integratu behar dira. Genero-agenda, enpresen eta giza eskubideen agenda eta, bereziki, ingurumen agenda, klima aldaketaren aurka borrokatzen dena.
- Adibide asko daude hainbat autonomia-erkidegotan eta hiritan, eredutzat hartu ahalako direnak Nafarroako politika publikoak antolatzekeko prozesuan.

Giza eskubideen arloko politika publiko batek:

- Desberdintasun iraunkorra eta egiturazkoa sortzen duen sistema neoliberalak berrikusi behar du.
- Giza eskubideei buruzko ikuspegi politikoa eta elkarren mendekotasunezkoa berreskuratu behar du.
- Gizarte kohesioa eta eskubide sozialak sustatu behar ditu, norbanakoen eskubideen eta gizarteari buruzko ikusmolde indibidualisten kontra. Gizartearen “komunitarismoa” berreskuratu behar du, eskubideei buruzko ikusmolde “onberen” kontra.
- Lanaren balio soziala sustatu behar du gizartearen kohesiorako elementu gisa eta eskubideen sortzaile gisa.
- Desberdintasuna gainditu behar du desberdintasunak kudeatzeko sistema baten bitartez. Desberdintasun guztiez ari gara.
- Naturaren suntsiketari eta bizi dugun krisi klimatikoaren inguruan sortzen diren bizikidetzaren-premiei ekin behar die.
- Elkartasuna berreskuratu behar du, antolaketa sozialaren zeharkako ardatz gisara.
- Maila anitzeko koordinazioa sustatu behar du erakunde publikoen artean, tokiko, eskualdeko eta estatuko gobernuen artean eta erakunde publikoen, pribatuen eta hirugarren sektorekoen artean.
- Bizikidetzarako “itunak” sustatu behar ditu. Gutxienez ere, elkarri ez erasotzeko itun bat desberdinen artean, eta birbanatze itun bat desberdinen artean.